

# Mariskalen kriptak galdua: ezpatak, hezurak eta misterio bat

Lizarrako San Pedro de la Rúa elizan zabaldu dute Nafarroako mariskalen kriptak, hiru mendez “galdua” egon ondoren. Bertan omen dira Pedro II.aren hezurak. Omen.

## URKO APAOLAZA

KALEFAKZIOA 80 ZENTIMETROKO sakoneran sartzeak uste baino lan gehiago ematen du, areago San Pedro de la Rúa bezalako eliza batean. Harlauzen azpian ezkutaturik irauten du ia hiru mendez Nafarroako mariskalen kriptak, harik eta 2010eko ekainean online gizartera azaleratu zuten arte. Berria klik batean ailegatu zen Lizarratik etxeko pantailaraino.

Baina kriptaren aurkikuntza ez da ustekabea izan arkeologoentzat. Goñi Gaztanbide artxibalaririk 1950eko hamarkadan ohartarazi zuen lurrazpi horretan zerbait garrantzitsua bazela. Mariskalen oinordeko diren Cortese-markesen eta Lizarrako eliztarren artean auzia sortu zen XVI. mendean, markesek euren hilobia sagra-riotik gertuen zegoen tokira eramane zutenean. Parrokiako artxiboko paper horietatik ondoriozta liteke kriptaren kokaleku zehatza. Pedro II.a mariskalak 1509an eramane zituen bere arbasoen hezurak Olibako monasteriotik San Pedro de la Ruara, eta don Pedro beraren gorpuzkinak ere leku horretara garraiatu zituzten Simancasetik. Nafarroako “bigarren parrokiarik garrantzitsuena” ez zen hura, zer gutxiago erreinuko leinu boteretsuenak deskantsatzeko...

Pedro II.aren heriotza misterio bat izan da betidanik eta horrek lagundu du bere inguruko mitoa handitzen. Garibai kronistak esane zuten bere buruari lepo zintzurra moztu ziola –kristaudentzat Jainkoaren nahiaren kontra egitea da suizidioa–. Baina zalantzarako atea irekita utzi zuten, esaldi hau gehitu baitzion bere kontakizunari: “Egia izan hala ez”. Mende batzuk geroago Arturo Campion izan zen Pedro II.a eraila izan zela defendatzen sutuena: “Heriotza sekretuen eragile den Estatu arrazoia” ikusten zuten horren guztia- ren atzean. Pedro Esarte historialariak berriki



NAFARROAKO GOBERNUA

Kriptak harlanduz egina dago eta koska batzuen bidez sartzen da bertara.

**Indusketak hasi eta momentu jakin batean, mariskalen ezkutua bistan geratu zen erdiko nabean**

esan duenez, suizidioaren teoria defendatzen dutenek mariskalaren “aldarte” erabiltzen dute argudio gisa –hainbat urtez Simancaseko ziegan kartzelaratu–, baina hori ezin liteke egiaztatu. Esarteren esanetan, are gutxiago testamenturik agertu ez denean. Lagunduko al du mariskalaren hilobiaren aurkikuntzak misterioa argitzen? Eta hor egon zitakeela jakinik, zergatik ez dute orain arte kriptak ireki?

### Aberatsen patua

“Nafarroan ez da sekula eliza baten barruan esku hartu errestituzio proiektu integral bat adostu gabe”. Halaxe irmo azaldu da Jesus García Nafarroako Gobernuako arkeologoa Iruñeko Kale Nagusiko bere bulegoan. Orain, aurpegi berritzeko txanda iritsi zaio Lizarrako San Pedro de la Ruari; horretarako 5 milioi euroko aurrekontua dute, *Nafarroa 2012 Planaren* barruan. Aukera horixe probestu dute lurrazpiko sekretuen bila hasteko.

Elizako indusketak hasi eta momentu jakin batean, mariskalen ezkutua bistan geratu zen erdiko nabean, abside nagusiaren parean. Pitzaturik, baina egoera onean zegoen, Nafarroako kateak eta lehoiarekin. Duela 250 urte inguru kripta kondenaturik geratu zen presbiterioaren eskailerapean, eta harez geroztik ez zen inor bertan sartu.

“Estalkia ireki eta koskak jaistean konziente zara kriptak duen garrantzia historikoaz, baina apur bat desmitifikatu egin behar da. Guk bagenekien hilobia hainbat belaunaldiz berrerabilia izan zela...”, dio Garcíaak. Lehen begiratuan hezurak, hilkutzetako tela zatiak eta burdinazko uztaillak nahaspilan ikusten dira. Arkeologo bakarrak egin zezakeen lan 12 metro koadroko kamera txikian, aldami berezi bat erabilita. Hezurak oso egoera txarrean daude, elizan aurkitu dituzten gainerako 700 gorputzenak baino askoz okerrago, hezetasuna ugaldtu duen mikroklima sortu baita kripta barruan. Aberatsen azken patua. Aurkitutako materialen artean, bi nabarmendu ditu arkeologoak: zeramikazko Kristo gurutziltzatu bat eta XVIII. mendeko ezpata bat brontzezko kirten eder batekin. Material guztiari frogak egin dizkiete Madrilgo, Gasteizko nahiz Valladolideko laborategietan, eta emaitzak aldizkari zientifiko batean publikatuko dituzte aurki.



NAFARROAKO GOBERNUA



NAFARROAKO GOBERNUA

### Pedro II.a, hor al zaude?

Jesus García ez da batere baikorra Pedro II.aren hezurrekin: “Gutziz ezinezkoa da jakitea zein diren; gainera, seguruena ez dira hor egongo, hilobiak garbiketak jasan dituelako eta hezur gutxi aurkitu dira”. Are ezinezkoagoa da mariskalaren heriotzaz daturik lortzea, alferrikakoak lirateke karbono 14 frogak edo paleopatologoen ahaleginak “delituaren” gorputzik gabe. Askota jota, DNA matrilinealaren bidez, mariskalen eta egungo Corteseko markesen artean erlazio zuzenik ote dagoen jakingo genuke.

Goian, kripta irekitzeko Nafarroako mariskalen ezkutua altxatu zuten unea; behean, hezurak eta bestelako materialak hobi barruan.

Lanak bukatzean, kripta ez da berriz ere gutziz estaliko, sarbide bat izango du etorkizuneko lanetarako, eta presbiterioa kriptaren mailan geratuko denez, hobia ikusgai egongo da. Zentzu horretan, Lizarrako Irujo Etxea elkarteak, Orreaga Fundazioak eta Nabarraldeko Pedro II.ari egindako omenaldian eskatu zuten kripta ez zedila gutxietsi: “Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gertu denean, memoria historikoa berreskuratzeko momentu gakoa da honakoa”, esan zuen Irujo Etxea-ko presidente Koldo Viñualesek. ■





[www.gpuntua.com](http://www.gpuntua.com)



## 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

**LASARTE-ORIA**  
2011-10-08 Herriko antzokia / 17:30

Bertsolariak:  
UXUE ALBERDI, AINHOA AGIRREAZALDEGI, IÑAKI APALATEGI,  
AMAIA ITURRIOTZ, OIHANA IGUARAN, ANDONI OTAMENDI

**IRUN**  
2011-10-09 Amaia antzokia / 17:30

Bertsolariak:  
IÑAKI ZELAIA, ALAIA MARTIN, HARITZ CASABAL,  
URKO EGANA, MANEX MUJICA, ASIER SASIETA

